

5/2018 AKTA
NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEK FEDERAZIOAREN BATZORDE BETEARAZLEAK EKAINAREN
5ean EGINDAKO BILERA

BERTARATUAK:

MAHAIBURUA:

Pablo Azcona Molinet jn., *Lodosako alkatea*

1. PRESIDENTEORDEA:

Raquel Garbayo Berdonces and., *Cintruénigoko alkatea*.

2. PRESIDENTEORDEA:

Jesús M^a Rodríguez Gómez jn., *Ribaforadako alkatea*.

MAHAIKIDEAK:

Unai Laco Goñi jn., *Agoizko alkatea*.

Karmele Marañón Chasco and., *Arbizuko alkatea*.

Ur Algeró Chivite jn., *Aresoko alkatea*.

Javier Albizu Sanz jn., *Artazuko alkatea*.

D. Ángel Obanos Galar, *Artikako Kontzejuko burua*.

Ezequiel Martín Muxika jn., *Atezko alkatea*.

Luis Alfonso Potestad Tellechea jn., *Aurizko alkatea*.

Nieves Recalde Zaratigui and., *Etxagueko Kontzejuko burua*.

María Vicenta Goñi Azanza and., *Gesalazko alkatea*.

Mario Fabo Calero jn., *Martzillako alkatea*.

Aritz Romeo jn., *Iruñeko zinegotzia*.

Arturo Goldaracena Asa jn., *Tafallako alkatea*

Eneko Larrarte Huguet jn., *Tuterako alkatea*

Cruz Moriones Uriz jn., *Ustaizeko Kontzejuko burua*.

Yolanda González García and., *Vianako alkatea*

IDAZKARIA:

Berta Enrique Cornago and.

Iruñean, bi mila eta hemezortziko ekainaren bostean, arratsaldeko bostetan, bigarren deialdian, aldamenean adierazitakoak bildu dira Nafarroako Udalen eta Kontzejuek Federazioaren egoitzan (Tutera kalea, 20, 3. solairua, Iruña), Batzorde Betearazleko kideak baitira. Bilkuraren buru Pablo Azcona Molinet jn. aritu da, eta idazkari, berriz, Berta Enrique Cornago and. Hona hemen

GAI-ZERREDA

- 1.- Aurreko bilkuraren akta onestea.
- 2.- Informazioa sektoreko batzordeei eta kontseiluei buruz.
- 3.- NUKFren Batzar Nagusi Bereziaren deialdia eta gai-zerrenda.
- 4.- Kudeaketa Txostena.
- 5.- Arreta goiztiarraren zerbitzua emateko hitzarmena.
- 6.- Lankidetzaren hitzarmena, Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren eta NUKFren artekoa, berdintasun politikak sustatzeko toki esparruan.
- 7.- Hiri eremuak berreskuratzeko diru-laguntzen 2018ko deialdia.
- 8.- Presidentearen informazioa.
- 9.- Galde-eskeak.

1. PUNTUA. Aurreko bilkuraren akta onestea

Aurreko bilkuraren aktaren kopia igorrita deialdiarekin batera, aldeztu aurretik irakurri beharrik gabe, presidentek galdetu du Batzorde Betearazleko inork oharrik duen haren inguruan.

Inork ez du oharrik egin.

ERABAKI DA:

2018ko maiatzaren 8an egin bilkuraren akta onestea.

2. PUNTUA. Informazioa sektoreko batzordeei eta kontseiluei buruz.

Honako informazio hau eman da egindako batzorde eta kontseilu sektorialen gainean:

- **Udaltzaingoa Koordinatzeko Batzordea eta Nafarroako Polizien Kontseilua (2018/05/09).** Aldeko txostena egin zitzaion Segurtasunari buruzko Foru Legearen aldaketari eta jakinarazi zen nola dagoen poliziaren zenbat lanpostu betetzeko deialdia eta nola dagoen polizia laguntzaileen zerrenda bat prestatzeko deialdia.
- **Toki Araubideko Foru Batzordea (2018/05/10).** Aldeko txostena egin zitzaien Nafarroako Segurtasun Publikoari buruzko Legea aldatzeko Foru Legearen aurreproiektuari, Taxiari buruzko Foru Legearen aldaketari eta Apirileko uholdeek kaltetutako udalerrien zerrenda onesten duen Foru Aginduaren proiektuari.
- **Asbestoa ezabatzeko plan zuzentzailea prestatzeko lan-taldea (2018/05/22).** Helburu hori betetzeko taldea eratu zen, oso osaera teknikoarekin. Plan zuzentzailea prestatu gogo da, asbestoa duten instalazioen inbentarioa egiteko, diagnostikoa emateko eta jarduteko plan bat prestatzeko.
- **Nafarroako Euskararen Kontseilua (2018/05/22).** Informazioa eman zen Plan Estrategikoari buruz. Euskaraldia ekimenaren berri eman zen, zeinak helburu baitu euskararen erabilera sustatzea. Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitarte eginen da.
- **Iruzuraren eta Ezkutuko Ekonomiaren Kontra Borrokatzeko lan iraunkorreko batzordea (2018/05/28).** Bilera horren xedea izan zen hartutako neurrien berri ematea eta Zergaren Kontrolerako Plana aurkeztea.
- **Nafarroako Ongizatearen Kontseilua (2018/06/01).** Gizarte Zerbitzuen Zorroaren aldaketak aurkeztu ziren eta informazioa eman zen gizarte zerbitzuen zentroak kudeatzeko Fundazio Publikoaz.

ERABAKI DA:

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

3. PUNTUA. NUKFren Batzar Nagusi Bereziaren deialdia eta gai-zerrenda.

Proposatu da Batzar Nagusi Bereziaren deialdia egitea ekainaren 22rako eta horren gai-zerrenda onestea.

Azaldu da ezen, erabaki zen moduan eta legegintzaldi honetan hasieratik egin den moduan, batzar horrek helburu duela NUKFren kontuak onestea eta urteko lehenbiziko seihilekoan egin jarduketan berri ematea. Nolanahi ere, hirugarren puntu bat erantsi da, Toki Administrazioa Berrantolatzeke Foru Legearen aurreproiektuari buruzkoa, Batzarrak bere iritzia eman dezan horren inguruan Toki Araubide Foru Batzordeak txostena egin baino lehenago.

Presidenteak gogora ekarri du Toki Administrazioaren Departamentuak abenduaren bukaeran igorri zigula aurreproiektua, eta, hortik aurrera, 3 bilkura egin zirela talde zuzentzaile eta eztabaidetzekoetan.

Nolanahi ere, nola gobernuak jarraitzen zuen aurreproiektuta prestatzeko lanetan, aldaketak egiteko, prozesua eten zen behin betiko aurreproiektua igorri arte, eta hori maiatzaren 21ean gertatu zen.

Maiatzaren 29an beste bilkura bat egin zen taldeekin eta aurreproiektua baloratzeko txostena prestatu zen, NUKFren Batzarrak bere iritzia emateko oinarria izanzen dena.

Hitza eman zaie bertaratutakoei.

Fabo jaunak, hitza hartuta, adierazi du txosten tekniko bat falta dela aurreproiektuari buruz.

Presidenteorde andreak ere azpimarratu du beharrezkoa litzatekeela NUKFko teknikarien txosten bat, bai eta kanpoko beste bat ere. Haren iritziz, ez da nahikoa talde zuzentzaileak eta eztabaidatzekoak prozesuaren barnean onetsi duten kontraste txostenarekin.

Albizu jaunak adierazi du txosten teknikoak ez duela deus bermatzen, zeren, eskatuz gero, gerta liteke bat aldekoa izatea eta bestea kontrakoa. Haren iritziz, alde politikora jo behar da, legezotasuna kontrolatzeko eginkizuna ez dagokigula guri, Parlamentuari baizik.

Garbayo andreak errepikatu du oinarri juridikoa nahi duela aurreproiektuari buruzko iritzia eman baino lehen.

Larrarte jaunak adierazi du etxeko teknikariek egiten dituztela txostenak, udaletan behintzat. Kanpoko txosten bat eskatuta, haren ustez, zalantzan jartzen dira teknikariak.

Goldaracena jaunak uste du txostenak badakartzala puntu teknikoak eta jakin nahi du hala izan behar den edo beste txosten bat egin beharko litzatekeen.

Presidenteak prozesu osoa kontatu du eta adierazi du, bere ustez, orain txosten juridiko bat egiteak prozesuaren kontra eginen lukeela. Azaldu du prozesu osoa teknikarien aholkularitzarekin egin dela eta orain iritzia emateko ordua dela.

Marañon andreak galdetu du ea alde bozkatuko den aldeko txostena egiten bada.

Larrarte jaunak adierazi du ez dagoela modurik saihesteko lege bati errekurtsioa paratzea, eta, adibide moduan, Etxebizitzari buruzko Foru Legea aipatu du, Konstituzio Auzitegian errekurrituta baitago.

Albizu jaunak adierazi du prozesu parte-hartzailea egitearen helburua izan dela aurreproiektua aztertzea, kontrastea egitea eta ikustea noraino egokitzen den ala ez prozesuaren emaitzetara.

Idazkari nagusiak, hitza hartuta, azaldu du informazio teknikoa eman dela prozesu osoan, bilkuretan, taldeen saioetan eta abarretan. Horregatik, ikusita alkate batzuek txostenak eskatu dituztela, erantzun zaie txosten horiek prozesuaren barnean baino ez direla eginen.

Lako jaunak adierazi du teknikariek parte hartu dutela dokumentu guztiak prestatzeko orduan, baina orain Batzarrari dagokiola iritzi politikoa ematea.

Garbayo andreak azpimarratu du ezen, hain zuzen ere, NUKFn teknikari onak daudelako eskatu duela txosten bat, iritzia ematen laguntzeko.

Martín jaunak zehaztu du badagoela txosten juridiko bat, NUKFren zerbitzu teknikoek emana.

Presidente jaunak azpimarratu du prozesuari indarra kenduko litzaiokeela iritzia emanen balitz soilik planeamendu juridiko batean oinarrituta, zenbateko eztabaidak izan diren kontuan hartuta.

Idazkari nagusiak adierazi du ezen, txosten juridiko bat nahi bada, Batzorde Betearazlean baino ezin dela hura erabaki, ulertzen baitu berriz eskatuko dutela txostena egiteko.

Larrarte jaunak taldeen txostena aipatu du eta azaldu du hango adierazpen eta irizpen juridiko batzuk gobernuak zehaztutakoaren kontra doazela.

Garbayo andreak berriz adierazi du beharrezkotzat jotzen duela txosten juridiko bat, Nafarroako Gobernuaren ildo nagusien agiriarekin gertatu zen bezala.

Albizu jaunak adierazi du horko horretan bi agiri egin zirela, bat teknikoa eta bestea politikoagoa, biak kontuan hartu beharrekoak aurreproiektua prestatzeko orduan. Iruditzen zaio orain beste une batean gaudela eta orain ez dela beharrezkoa iritzi politiko ematea aurreproiektuari buruz.

Larrarte jaunak galdetu du nola jarraituko duen prozesuak, gaurdainoko epea baitzegoen ekarpenak egiteko txostenari.

Azaldu zaio edukia aldatzen ez duten ekarpenak erants dakizkiokeela txostenari eta, gai zerrendan sartzea onesten bada, Batzarraren deialdiarekin batera igorriko dela.

Romeo jaunak adierazi du ez duela aukerarik izan txostena patxadaz ikusteko, baina oso deskriptiboa iruditzen zaiola. Esan duenez, une honetan ez dago iritzia emateko moduan.

Gaia Batzordearen onespenera jarrita,

Gehiengoz,

ERABAKI DA:

Presidentearen proposamena onestea, eta NUKFren Batzar Nagusi Bereziaren bilkuraren deialdia egitea; 2018ko ekainaren 22an izanen da, Iruña Park hotelean (Arcadio M^a Larraona karrika, 1. Iruña), 16:30ean lehendabiziko deialdian, eta 17:00etan, berriz, bigarrenean. Hona hemen gai-zerrenda:

- 1º. NUKFren 2017ko Kontuak onestea.
- 2º. 2018ko lehenbiziko seihilekoan eginiko jarduketaren kudeaketa txostena.
- 3º. Nafarroako Toki Administrazioa Berrantolatze Foru Legearen aurreproiektua.

4. PUNTUA. Kudeaketa Txostena.

Presidenteak kontatu du zer jarduketa egin dituen NUKFk urteko lehenengo seihilekoan, deialdiarekin batera igorri den kudeaketa txostenean jaso bezala. Adierazi duenez, egindako jarduketaren aurrerapen bat, besterik ez da, eta, hortaz, ez da onespenera jarri behar, abenduko Batzar Nagusari baitagokio 2018ko kudeaketa txostena onestea.

ERABAKI DA:

Adieraztea jakinaren gainean daulela zehaztutako jarduketak egin dituela NUKFk urteko lehenengo sei hilekoan.

5. PUNTUA.- Arreta goiztiarraren zerbitzua emateko hitzarmena.

Proposatu da Nafarroako Gobernuarekin lankidetzan aritzeko hitzarmen bat onestea, arreta goiztiarraren zerbitzua ematearren.

Azaldu da zein den hitzarmenaren helburua: funtsean, udal batzuekin egiten ari zena formalizatzea, Nafarroako Gobernuari dagokion zerbitzu hori eman dadin horren beharra duten haurrak eta familiak bizi diren udalerrietan.

Hitzarmenaren arabera, lokal egokiak dituzten toki entitateek, bertan edo hortik hurbil behar hori duten haurrak baldin badituzte, lokalen erabilera lagako dute Nafarroako Gobernuko langileek zerbitzua eman dezaten.

ERABAKI DA:

Arreta goiztiarraren zerbitzua emateko lankidetzan aritzeko hitzarmena onestea, akta honen eranskinean jaso dena, eta gaitasuna ematea presidenteari hura sina dezan.

6. PUNTUA.- Lankidetzan hitzarmena, Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren eta NUKFren artekoa, berdintasun politikak sustatzeko toki esparruan.

Proposatu da Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekin lankidetzan aritzeko hitzarmen hori onestea, helburu duena halako politikak sustatzea toki esparruan.

Presidenteak azaldu du Batzorde Betearazlearen aurreko bileran jakinarazi zela hitzarmen hori prestatzen ari zela. Hitzarmen horren arabera, NUKFk bere gain hartzen du berdintasun arloko jarduketa batzuk egin beharra; horretarako, Nafarroako Gobernuaren 35.000 euroko ekarpena jasotzen du eta konpromisoa hartzen du 10.000 euroko ekarpen bat egiteko.

Hitza eman zaie bertaratutakoei:

Goldaracena jaunak adierazi du balorazio positiboa egin diotela berdintasun teknikariek hitzarmen horri eta gogora ekarri du Berdintasunari buruzko Legeak eskumenak ematen dizkiela udalei berdintasunaren arloan. Halaber, adierazi du aurrekontu partida bat dagoela hitzarmen horretarako eta ezin dela desaprobatu.

Bestalde, Garbaya andreak adierazi du Nafarroako Gobernuak hartu beharko lituzkeela bere gain NUKFri esleitu gogo dizkion eginkizunak.

Goldaracena jaunak adierazi du NUKFk berdintasun teknikari bat izan beharko lukeela, berdintasunaren alde lan egiteko Federazioaren barnean.

ERABAKI DA:

Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren arteko lankidetzaren hitzarmena onestea, akta honi erantsita dagoena, berdintasun arloko politikak sustatzeko toki esparruan, eta gaitasuna ematea presidenteari hura sina dezan.

7. PUNTUA.- Hiri eremuak berreskuratzeko diru-laguntzen 2018ko deialdia.

Presidenteak gogora ekarri du Batzorde Betearazleak onetsi zuela hitzarmen bat Caixarekin, baina oraindik sinatu gabe dagoela. Hori dela eta, bidezkoa da deialdiaren oinarriak onestea, ahalik eta lasterren jartzeko martxan.

Oinarriak iazkoak bezalatsukoak dira, zeinetan zenbait aldaketa egin baitziren ezein eskaera geldirik ez zedin deialditik kanpo.

ERABAKI DA:

Hiri Eremuak Berreskuratzeko diru-laguntzen 2018ko deialdia onestea, akta honi erantsita dagoena.

8. PUNTUA.- Presidentearen informazioa

Presidenteak gai hauei buruzko informazioa eman du:

- Maiatzaren 15ean bilkura bat izan zuela Barneko zuzendari nagusiarekin, aztertzekeo piroteknia duten ikuskizunei buruzko foru araudi bat onesteko aukera.
- ANASi 2000 euro ordaindu zaizkiola 4 saharar ume ekartzeko, Saharar Ordezkaritzarekin sinatutako hitzarmenari jarraituz.
- Aurkeztu diren lankidetzaren hitzarmenen berri eman du.
- Jakinarazi du zer jarduketa egin den 57 hauteskunde elkarterei hauteskunde gastua gainditzeagatik ireki zaizkien zehapen prozedurak direla eta.
- Maiatzaren 29an bilkera izan zuela talde zuzentzaile eta eztabaidatzekoarekin, buru emateko Nafarroako Toki Administrazioa Berrantolatzekeo proiektuari buruzko txostenari.

ERABAKI DA:

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

9. PUNTUA.- Galde-eskeak

Fabo jaunak galdetu du nola dagoen albienteen egoera.

Presidenteak erantzun du prentsan agertutakoa dakiela, hots, zenbait alderdi politiko sindikatu batzuekin negoziatzen ari direla Poliziei buruzko Foru Lege berri bat.

NUKFK argudiatu zuen, bere garaian, ezin zitzaiela eman poliziei ematen zitzaien tratua bera, baina egun ez gara horretan ari.

Garbaya andreak galdetu du ea badakigun beste ebazpenik eman duen Nafarroako Administrazio Auzitegiak aparteko orduen inguruan.

Idazkari nagusiak esan du oraingoz bi ebazpen daudela eta adi egonen garela, horren berri izateko besteren bat ematen bada.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, presidente jaunak bilkura amaitutzat eman du, goiburuan aipatzen den eguneko arratsaldeko sei eta berrogeita bost direnean. Idazkari naizen honek honako akta idatzi eta horren fede ematen dut, eta presidentearekin sinatu dut.

PRESIDENTEAREN ONIRITZIA,

IDAZKARIA,

Pablo Azcona Molinet jn.

Berta Enrique Cornago and.